41. DONOSTIAKO NAZIOARTEKO MARATOIA ARAUDIA 2019
ARAUDI PROBISIONALA – 09/15/2017

1. ARTIKULUA – EGUNA ETA ORDUA

Gipuzkoako Atletismo Federazioak (GAF) Fly Group enpresarekin batera, Donostiako Nazioarteko 41. Maratoia antolatzen du 2019ko azaroaren 24ean.

Irteera goizeko 9:00etan izango da Errondo Pasealekuan. Hirian zehar izango da RFEAk, AIMSek eta IAAFek 42.195 metrotan homologatutako ibilbidean. Lasterketa burutzeko denbora muga 5 ordukoa izango da eta helmuga Anoetako Mini Estadioan kokatuko da. . **www.zurichmaratondonostia.com**

2. ARTIKULUA – PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan 1999.urtean edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake, edozein sexu edo herrialdetakoa izanik, federatua izan edo ez, IAAF eta RFEAko araudiak onartuz.

Lasterkari bakoitzak bere gain hartzen du parte hartzea eta arazorik gabe frogari aurre egiteko gai da.

3. ARTIKULUA – IZEN EMATEA

Partaide kopurua 4.000 lasterkarietara mugatuta dago.

Izen ematea ON LINE egin daiteke **www.zurichmaratondonostia.com** web ofizialean eta martxoaren 1ean irekiko dira azaroaren 21-ra arte, beti ere dortsalak libre geratzen diren bitartean.

Eguneko lizentzia tramitatzea derrigorrezkoa da RFEAko lizentzia nazionala, euskal lizentzia autonomikoa edo “Carnet de Corredor Plus” ez dutenentzat. Eguneko lizentzia tramitatzeko 5 euroko gehigarria ordaindu beharko da izen ematearekin batera.

SALNEURRIAK: SALNEURRI GUZTI HAUEK DORTSAL TXIPA DUTE BARNE

Lehenengo 300 dortsalak	44,50 €
Apirilak 2 arte	49,50 €
Martxoak 3 – irailak 15	52,50 €
Irailak 16 – azaroak 12	57,50 €
Azaroak 13tik Aurrera	70,50 €

4. ARTIKULUA –GIPUZKOAR FEDERATUEN IZEN EMATEA

GAFren bitartez lizentzia tramitatua daukaten gipuzkoarrek izena doan emateko aukera izango dute baldin eta 2017-2018 edo 2018-2019 denboraldietan gutxienez maratoian, maratoi erdian edo 10.000 metro pistan honako marka lortu badute:

10.000 METRO PISTA	MARATOI ERDIA	MARATOIA
33:00 (GIZONAK)	1.15:20 (GIZONAK)	2:45:00 (GIZONAK)
40:00 (EMAKUMEAK)	1:35:00 (EMAKUMEAK)	3:24:00 (EMAKUMEAK)

Donostiako Nazioarteko Maratoia, aldi berean, Gipuzkoako Maratoi Txapelketa Nagusia izango da, bai gizonezko baita emakumezkoen mailan ere. Txapelketan parte hartu nahi dutenek, GAFeko helbide elektronikora (gaf@kirolak.net) bidali beharko dute partehartze eskaera hurrengo datuekin batera azaroak 11a baino lehen: izena, 2 abizen, jaioteguna, telefonoa, lizentzi zenbakia, kluba eta marka non eta noiz lortu den. Atleta hauek eta elitezkoek derrigorrez dei-kamaratik pasa beharko dute. DNI-a, lizentzia edo beste dokumentu ofiziala eta parte hartzeko taldearen arropa ofiziala aurkeztu beharko dute irteera puntuan. Deialdi kamara irteera aurrean kokatuko da eta bertatik pasa behar da 10kmko lasterketaren hasiera eman eta gero eta 8:50 tartean

5. ARTIKULUA- IZEN EMATE ITZULPENA

Behin izen ematea eginda, ez da dirua itzuliko, ezta hurrengo edizioetarako gorde.halaber, izen ematea egiterakoan itzulera bermea kontratatzeko aukera dago, azaroak 1 arte izen ematearen 100% bueltatuz, eta hortik azaroak 18a arte, hurrengo ediziorako izen ematea gordetzeko aukera emanez. Ezinbestekoa da bermea izen ematerarekin batera egitea, eta ez beste momentu batean. Ez da diru itzulerarik egiten. Itzulera burutzeko maraton@flygroupnet.com helbidera eskaera bidali beharko du izen ematearen titularra hurrengo datuak adieraziz: izen abizenak, partaidearen nortasun agiria eta izen ematearen erreferentzia.

6. ARTIKULUA- DORTSALA NON, NOIZ JASO

Dortsal-txipa eta lasterkariaren boltsa hurrengo orduetan jasoko dira Anoetako Antonio Elorza Belodromoan.

- Ostirala Azaroak 22, 17:00etatik 20:00etara
- Larunbata Azaroak 23, 10:00etatik 19:00etara
- Igandea Azaroak 24, 7:00etatik 8:00etara (egun honetan zerbitzu minimoak dira. Honegatik dortsal-txipa aurreko egunetan hartzea aholkatzen dugu, pertsonalki ezin baduzu, hirugarrengo pertsona bat bidaltzeko aukera duzularik).

NAN beharrezkoa da dortsal-txipa jasotzeko eta hirugarrengo pertsona bat bidali ezgero, NANren fotokopia edo argazkia mobilean.

7. ARTIKULUA – TXIPAREN DERRIGORTASUNA

Dortsal-txipa erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Dortsala beti ikusgarri eraman behar da gorputzeko aurreko aldean.
Lasterketaren irteeran, maratoi erdiaren parean eta helmugan, kontrolak ipiniko dira eta lasterkari guztiek derrigorrez pasa beharko dute kontrol oinpekotik.

8. ARTIKULUA- DENBORA MUGA ETA ERBIAK

Lasterketak gehienez 5 orduko iraupena izango du, irteeran azkeneko korrikalaria atera eta gero. Eta hurrengo denbora pausoak betetzen ez dituzten korrikalariak, lasterketatik kanpo geratuko dira:

- 5 KM : 35 min 33 seg
- 10 KM: 1 h 11 min 6 seg
- 20 KM: 2h 22 min 12 seg
- Maratoi erdia: 2h 30 min
- 25 KM: 2h 57 min 45 seg
- 30 KM: 3h 33 min 18 seg
- 35 KM: 4h 8 min 51 seg
- 40 KM: 4 h 44 min 24 seg
- 42.195 KM : 5 ordu

Antolakuntzak 7 erbi jarriko ditu. Erritmoa konstantea izango da eta marka hauek egiteko izango dira:
2h45, 3h, 3h15, 3h30, 3h45, 4h eta 5h.

9. ARTIKULUA- DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK

Lasterkariak deskalifikatuak izango dira honako kasuotan,:

- Dortsal txipa erabiltzen ez dutenek eta ezarritako kontroletatik pasatzen ez direnak.
- Ibilbide osoa burutzen ez dutenak.
- Dortsalaren publizitatean aldaketak egin edo ezkutatzen dituztenak edo bularrean ondo jarria ez dutenek
- Beste lasterkari baten dortsal-txipa eramaten dutenak.
- Epaileen edo antolakuntzako lankideen aginduak jarraitzen ez dituztenak.
- Aurtengo edizioko dortsala ez daramatenak.
- Helmugara dortsalik gabe iristen direnak.
- Proban izena eman ez duten lasterkariak edo ofizialak ez diren ibilgailuen laguntza jasotzen dutenak.
- Ibilbidearen planoan markatuta dauden horniduta puntu ofizialetatik kanpo hornidura jaso edo hartzen dutenek
- Hornidura ibilgailu mobiletatik edo beste atleten hornidurak hartzen dutenek
- Ibilbidearen mapan agertzen diren hornidura postu ofizialetatik kanpo hornitzen direnak.
- Ibilbidearen barnean haurren aulkiak edo kotxeak eramaten dituztenak.
- Haurrekin ibilbidearen barnean korrika egiten dutenak. Baita helmugan ere.
- Bestalde, proba jarraitu ahal izango duten ibilgailu bakarrak antolakuntzakoak izango dira, eta hauek behar bezala bereizita egongo dira.

10. ARTIKULUA- HORNIDURA OROKORRA ETA PERTSONALA

Hornidura postu orokorra eta pertsonala 5 km-tik 5 km-ra ezarriko da, eta 2.5 km-tik 2.5 km-ra ura ipiniko da. Hornidura postu guztien kokapena ibilbidearen planoan ikusi ahal izango da web-aren bitartez. Helmugan ere, hornidura postua ezarriko da.

Hornidura pertsonala soilik elite eta gipuzkoako txapelketan parte hartuko duten atletentzat da, eta zeozer utzi nahi dutenek, lasterketa egunean 07:00etik 08:00etara entregatu behako dute Anoetako Belodromoan. Horniduran lasterkariaren dortsala eta zein puntu kilometrikoan entregatu nahi den jarri behar da.

11. ARTIKULUA – ASEGURUA / LASTERKARIAREN KARNETA

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera.
Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiak istripuetarako aseguru poliza batek babestuko ditu, baina betiere lasterketaren ondorioz gertatu bada istripua. Aitzitik, ez die erantzungo ezkutuko gaixotasunen edo, zuhurtziagabetasunen, axolagabetasunen, edo legeak nahiz araudi hau ez betetzearen ondorioz sortutako arazoei. Bestalde, aseguruak ez ditu bere gain hartuko lasterketa gunera heltzeko bidean eta gunetik ateratakoan gerta litezkeen arazoak .

12. ARTIKULUA – OSASUN SOROSPENA

Osasun sorospen postuak zirkuituaren puntu desberdinetan eta helmugan jarriko dira. Antolakuntzak, proba baino lehen, mediku azterketa egitea gomendatzen die lasterkariei, era berean, parte hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du kirol ekintzak dakarren arriskua.

13. DOPING KONTROLA

IAFFren arauei jarraituz, ente ofizialek aukeratutako lasterkariei (emakume nahiz gizon) egingo zaie doping froga.

Gogoan izan, doping kontrolari uko egiten diotenak lasterketatik kanpo geratuko direla. Bestalde, eskudiruzko sariren bat lortzen dutenek ezin izango dute saria jaso harik eta antolatzaileak doping kontrolaren emaitzak izan arte.

Doping kontrolaren emaitza positiboa izanez gero, kontra-analisiak egingo lirateke, eta bigarren aldiz positiboa aterako balitz, parte hartzailea inolako saririk gabe gelditukо litzateke.

14. ARTIKULUA – SARIAK

Maila nagusiko hiru sailkatuek, garaikurra jasoko dute. Beterano mailan, hurrengo kategoriak hartuko dira kontuan: 40 urtetik gorakoak, 50 urtetik gorakoak eta 60 urtetik gorakoak. Baita Gipuzkoako Txapelketako 3 lehenengo sailkatuak gizonezko eta emakumezkoetan.

DIRU SARIAK

- Sariak berdinak izango dira emakumezko nahiz gizonezkoentzat.
- Sari guztiek atxikipen fiskala izango dute.
- Froga bukatu eta 30 egunen buruan ordainduko dira sariak, antidopineko emaitzak izan bezain laster.

14.1. MAILA NAGUSIKO LEHEN SAILKATUENTZAKO SARIAK

MAILA NAGUSIA

1. 3.000 €
2. 1.500 €
3. 1.000 €
4. 750 €
5. 500 €
6. 400 €
7. 300 €
8. 200 €
9. 100 €
10. 100 €

- Maila nagusiko lehen hiru sailkatuei sariak osorik ordainduko zaizkie, baldin eta 2.10.00 marka (gizonak) 2.28.00 marka (emakumeak) edo hobea lortzen badute. Marka horiek lortu ezean, sariaren % 50 a ordainduko zaie.
- 2.15.00ko (gizonak) edo 2.35.00ko (emakumeak) denbora hobetzera iritsi ez direnei, saria % 75era murriztuko zaie.

14.2 SARIAK ATLETA GIPUZKOARRENTZAT

1. 600€
2. 400€
3. 200€

- Atleta Gipuzkoarrak kontsideratuko dira Gipuzkoako Lurralde historikoan erroldatuak daudenak gutxienez, 2016ko urtarrilaren 1etik.
- Sari hau jasotzeko, izen ematea egiterakoan Gipuzkoan bizi direla adierazi behar dute.
- Saria osorik (100%) eskuratu ahal izateko, 2.20.00 marka (gizonak) eta 2.49.00 marka (emakumeak) edo hobea lortu beharko dute.
- 2.30.00KO (GIZONAK) edo 3.00.00 (emakumeak) denbora hobetu ezean, **ez dute saririk jasoko**.
- Sari hauek metatu daitezke.

14.3 SARIAK ATLETA ESPAINIARRENTZAT

1. 2.000 €
2. 1.000 €
3. 500 €

- Sariak osorik ordainduko zaizkie, baldin eta 2.12.00 marka (gizonak) 2.32.00 marka (emakumeak) edo hobea lortzen badute. Marka horiek lortu ezean, sariaren %50 a ordainduko zaie.
- 2.15.00ko (gizonak) edo 2.35.00ko (emakumeak) denbora hobetzera iritsi ez direnak, **ez dute saririk jasoko**.
- Sari hauek metatu daitezke

14.4 ERREKORRAK

ESPAINIAKO ERREKORRA

Espainiako errekorra gainditzen dutenak **6.000 € ko** saria izango dute:

Espainiako errekorraren markak hauek dira:
Gizonak: 2.06.62
Emakumeak: 2.26.51

14.5 MARKAREN ARABERAKO SARIAK

GIZONAK	ZENBATEKOA	EMAKUMEAK
< 2.09.00	1000 €	< 2.27.00
< 2.08.00	2000 €	< 2.25.00
< 2.07.00	6000 €	< 2.23.00
< 2.06.00	8000 €	< 2.21.00
< 2.05.00	10000 €	< 2.19.00
< 2.04.00	12000 €	< 2.17.00

15. ARTIKULUA- SAILKAPENA

Antolakuntzak frogaren egunean behin-behineko sailkapenak argitaratuko ditu. Hurrengo egunean sailkapen ofizialak argitaratuko dira.
Hauek epaileek alda ditzateke antolakuntzak denborak kontrolatzeko ibilbidea zehar jartzen duten kontrol pausuak berrikusi eta gero. Abenduak 16ean izango dira beraz behin betirako sailkapen ofizialak.
Bertan aurreikusi ez den guztia IAFFren araudiaren arabera aztertuko da.

16. ARTIKULUA – IRUDI ESKUBIDEAK

Parte hartzaile guztiek lasterketan izena ematen duen momentuan araudi hau onartuko dute, eta GAFri baimena ematen diote, berak edo bitarteko beste entitateek partaidearen datu pertsonalen nahiz proban zehar euren irudiaren erabilera informatikoa egiteko.

Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoaren arabera, parte hartzaileak fitxategian jasotako datuak osorik edo partzialki aldatu ahal izango ditu. Horretarako, GAFera idatziz egin beharko du datu hauek aldatzeko eskaera. Helbidea: Kirol Etxea , Anoetako Pasealekua 5, 20014 Donostia.

Araudi hau RFEAk onartutakoa da.
Bertan aurreikusi ez den guztia IAAFren araudiaren arabera aztertuko da.